

SAGARDUA

GUZIOK dakigu, kondairak ala erakuzten digulako, Noe izan zala lenengo ardua egin zuen gizona; bañan guchik jakingo dute oraindik, sagardua, ardua baño lenago sortutako edaria dala, ta gure aita Adan'ek egiña izan zala lenengo sagardua.

Nola sortu zan lenengo choch berria, da azaltzera nuana itz labur abetan.

Guztiok dakiten gauza da, ta ez daukagu emen zergatik erakutzi biarrik, Jainkuak debekatu ziola lendabiziko gizonari sagar suaitzen alorta jatia, ta agindu au autsi zutelako, gure lenengo guraso Adan ta Eba paradisotik kanpora bigaldu zitubela, ta bezte naigabe askoren tartian lan egitera biartubak izan zirala.

Egun batean zebillen Adan bere emaztearekin, buru makur, isil ta oso naigabetuba, gogoraturik galdu zuela geyago arkituko etzuben zoriontasun berdin gabea; ta ara non bat batetan, beste zuaitz mota batzuen artian ikusten duen bat sagarrarena, oso orriduna, galanta ta ederra, iya lurra juaz bere adar ugari ta zabalak zeukaten alorta ugariyarekin.

Zuaitz ura ikusi zubenian, Adan dardarka jarri zan ikaraz erori bear zuela zirudiyela, ta Ebak zori artan ikusi zubenian galdetu zion:

—¿Zer dezu, Adan?

—¿Ez aldezu ikusten?

—¿Zer?

—Zuaitz madarikatu ori.

—¡Zeñen ederra dagon! ¡Oyek sagar *primoriak*!

—Baña emakumia, guri gertatu zaiguna gertatuta, ¿izango zenduke ausardiya alorta orri begiratzeko, eskubetan artzeko, abora eramateko?

—Zer nai dezu bada, Adan maitia, alorta orrek oso zoratzten nau. Laga zaidazu sagarcho bat jaten, bat bakarra, bat besterik ez.....

Au entzun zubenian, jarri zan Adan len zegon baño aserriago, ta errabi biziyan eldu zion suaitzari, ta bere beso indartsuen kemen gu-ziakin astindu zuben, lagarik lur guzia sagarrez estalia.

Malda bera jechi ziran jiraka jiraka sagar guziak, eta gelditu ziran azkenik onduan zegon zulo aundi batian.

Etzan orrenbesterekin amaitu Adan'en aserre sutsua, ta arturik in-guruan arkitu zituben arririk aundienak bota zituben gañera, apurtu-rik, cheturik sagar guziyak.

.

Zenbait egun igaro ziran geroztik. Oitu bezela janarien billa zebil-tzan zenar emasteak. Oso nekatuak arkitzen ziran ta geldi aldi bat egin zuten, aurreroko gertaera izan zan leku inguruan.

Egun artan etzuten oraindik urik arkitu ta oso egarrituak zeuden. Alakorik batian Ebak ikusi zuben Adan'ek sagarrak zanpatu zituben zulo artatik, alako likurt garbi ta urre koloreko bat chirriyuan zijuala. Lazterka joan zan ta auspezturik eran zuben gogotik likurt estitsu ura.

¿Etazertzan? Adanek arriakin zanpatu zituben sagarren zumua, eguzkiaren indarrarekin irakin ta biurtu zana edari berdin gabekoan. Urašen zan ludian lenbizi egin zan sagardua: lenen lenengo choch be-rriya.

—Atoz, Adan maitea, oju egin zion Eba'k, atoz onuntz, urre urtua dirudien edari on au eratera: guk, orain arte, eran ditugun uren al-dian jau mama!

Oriše bera esaten dute oraindik Astigarraga'ko ta Ernani'ko upela-tegietan: jau mama!; baña ez dute jakingo non izan zuben sagarduak bere lenengo sustraya.

Ara bada emen azaldu, danak jakin dezaten.

Y.

